

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2012ko irailaren 11. IX. urtea. 2.397. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Joxean Tolosa pilota txapelketaren finalistak, lehia amaitu ostean. AMETS ZABALA

Joxean Tolosako txapelak, etxekoentzat

Amezketako Zazpi Iturri elkarteak antolatzen duen pilota lehiaketaren hiru txapelak taldekoentzat izan dira; kadeteetan Jokin Altuna, gazteetan Iker Irribarria eta nagusietan Beñat Arzelus dira irabazleak **07**

Eskulturastean saritu dituzten bi obra kalean gauzatuko dituzte datozen egunetan

Manu Uranga irabazleak tailerrean amaituko du bere obra eta gerora kalean jarriko da; bigarren sariduna, 'Ura,' Trianguloan eta Zerkausian egingo da, eta 'Harrikumeak,' hirugarren sariduna, Alondegia plazan **02**

Gobernu batzarrak eraso sexisten aurkako mezua kaleratu du

Hilaren 2an Tolosan gertatutakoa gaitzetsi du eta indarkeria matxista «giza eskubideen urraketa larrietakoa» dela esan du **03**

Akademia Pausoka

HIZKUNTZAK ERREFORTZUA

Ingelera (Ereko, hezkuntz, Unibertsitate, azterketak, errefortzua...)
Alemana - Arabiera - Italiara
Itzulpenak
Irakadego kualifikatua

Frantsesa - Matematika - Kimika - Gaztelania - Matrikula - Eguneroko jarraipena - Tardak bokalak

Irailen kursoa hasiera eta ondorengoak

Martin J. Iraola, 2- behea 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943.249.161 | 686.971.962

Irabazi ez arren, bere maila eman duela esan du Zeberio elduaindarrak

Erremonteko buruz buruko txapelketa galdu du Urrizaren aurka bi tantorengatik **06**

Isolamendu egoeran daukate Juan Mari Mujika amezketarra

Soto del Realeko kartzelan espetxeratu dute, eta horren aurka elkarretaratzea egin dute **03**

Eskualdekoek ez dute txapelik jantzi herri kirolen lehia nagusian

Zazpi Herrialdeetako Txapelketa Bizkaia irabazi du; Nafarroa Garaia bigarren izan da eta Gipuzkoa hirugarren **06**

Getaria-Tolosa traineruak hirugarren postuan amaitu du Kontxan

Zumaiak irabazi du estropadako bigarren jardunaldia eta bigarren postua kendu die Getaria-Tolosakoei **06**

Nik naitu euskara

MATRIKULA

IRAILA 3-14
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

AITZOL UDAL EUSKALTEGIA
Rendilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA
943651006 - 943652343
www.udal-euskaltegia.net
atolosa@udal-euskaltegia.net

IRAILA 3-14
Rendilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA
943651006 - 943652343
www.udal-euskaltegia.net
atolosa@udal-euskaltegia.net



Manu Uranga irabazleak bere proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen atzo egindako agerraldian. I. URKIZU

Kalean gauzatuko dituzte eskulturak, simposiumeko irabazleetako batzuk

Manu Urangak lehen saria jaso du, eta tailerrean amaituko du, gerora kalean jarriko duen eskultura

Itzea Urkizu Tolosa

Eskultura eta esku-hartze artistikoaren I. Simposiumeko saridunetako batzuk kaleak ariko dira aste honetan, beren sorkuntza lanak gauzatzen.

Nestor Basterretxeak, Nisa Goiburuk, Iñaki Epeldek, Jose Ramon Andak, Charo Otegik, Asier Mendizabalek, Peio Agirrek eta Pello Irazuk osatutako epaimahaiak, Manu Uranga zumaieraren proiektuari eman dio lehiaketako lehen saria. Uranga tailerrean ari da maketan propo-

satutakoa fisikoki gauzatzen, eta eskultura iraunkorra izango da Tolosako espazio publikoren batean.

Bigarren eta hirugarren saria, berriz, Daniel Merak eta Elena Aitzkoak jaso dituzte, hurrenez hurren, eta eskultura iragan-korrek egingo dituzte bi artistek aste honetan bertan.

Herritarrekin elkarrekin zantza

Estolda arteko lerroak proiektuak jaso du simposiumeko lehen saria. Manu Uranga egileak bere lan batek espazio publiko bat hartuko zuenik ez zuela sekula pentsatuko azaldu du: «Lan egiteko modua aldatu dit eskulturaren kokapenak, baina benetan interesgarria iruditu zait, etengabeko hartu emana baita herriarekin eta gizartearekin».

Artista zumaierak zehaztu

duenez, eskultura bere azken fasea iristen ari da. Hasiere batean, bozetoa abiapuntu gisa erabili zuen Urangak, eta geroztik zerbait gauza aldatu behar izan ditu: «Hasiere batean, Tolosako kaleetako estolden tapak erabili nahi nituen, herri bakoitzak hain bereizgarriak dituen armarruekin, eta tolosarrekin hainbat urtetan zehar zapaldutakoekin. Hau ez da posible izan, eta estolda berriak erosi behar izan ditut azkenean».

Eskultoreak, ordea, aldaketa hauek gaitz bezala hartu beharrean, baliabide gisa ikusi ditu tailerrean.

Tolosako Alde Zaharraren irakurketa historiko bat egin nahian, arkitekturaren ikuspuntutik interesgarriak iruditu zaizkion guneekin bilduma moduko bat osatuko du alde batetik. Era berean, eskultura bera izango da

proiektuaren bigarren zatia, eta Tolosako hirigintzari zuzen-zuzenean eragingo dionez, lanaren kokalekua erabakitzeke ideia bat baino gehiago dituela azaldu du: «Gero ikusi egin behar da herritarrei nola eragiten dien eskulturrak». Nisa Goiburuk eskulturaren kokalekua aste honetan bertan erabakiko dutela nabarmendu du.

Etorri eta joaten den eskultura

Ura izenburupean gauzatuko du, Daniel Mera donostiarrak, Tolosako espazio publikoetarako egindako proiektua.

Finean, artistak Oriá ibaitik jasotako ur kantitate jakin bat leku batetik bestera eramatea da egitasmoaren muina; Merak, Trianguloa plazatik Zerkausi gaineko terrazara eramango du ura.

Uraren lekualdatze hau eten-gabekoa izango da, eta bi ur boba, bi energia sorgailu eta PVC materialez egindako hodi garde-nak erabiliko ditu horretarako.

Hasiere-hasieratik, eskultura iragan-korra izateko ideiarekin hasi zen lanean artista, eta oinarrian, Pablo Gorosabel edo Rondilla kalearen bilakabide historikoa izan du Daniel Merak: «Erdi Aroan, Erretengibel izeneko ibaixka pasatzen zen, gaur egun Rondilla kalea dagoen lekutik, eta ibai honek harresidun hiribildua babesten zuen. Herriaren eraldaketak, ordea, ibaixka desagertarazi eta bere lekuan gaur egun dagoen kalea sortzea ekarri zuen», azaldu du Merak.

Honela, beraz, Erretengibel ibaixka simbolotzat hartu du eskultoreak, hiria nola eraldatu den adierazteko. Bide beretik, Trianguloa plazak duen malda metafora gisa erabili nahi izan du bigarren saria jaso duen proiektuaren egileak: «Erretengibel ibaixka zenaren eraginez du malda hori plazak, eta beraz, jada hor ez dagoen zerbaiten sinbolo bezala erabili nahi izan dut».

Aste honetan hasi eta bukatuko du proiektua Merak, eta gaur bertan, PVC hodiak jarriko ditu. Bihar eta ostegunean, berriz, ur bonbak nahiz urak egingo duen ibilbide osoaren azken zehaztapenak frogatuko dituzte, eta azkenik, ostirala eta larunbata izango dira, egitasmoa bera gauzatuta ikusi ahal izateko egunak.

Uraren inguruan sortutako egitasmo honez gain, ordea, beste eskultura iragankor baten lekuko izango dira Tolosako kaleak; hirugarren saria jaso duen *Harrikumeak* proiektuarekin ariko da, Elena Aitzkoa artista.

Lurra izango da Aitzkoaren piezen erakustoki, eta Alondegia plaza aukeratu zuen arabarrak, bere proiektua gauzatzeke: «Oso erdigunean dagoen plaza da, baina ez du beste eremu batzuek duten garrantzia historikoa. Eraikin eta gune historiko garrantzitsuz inguratuta dago, baina lekua bera beti egon da atzean, gordeta bezala».

Horrela beraz, espazioaren izaera honek eraginda, eta Alondegi-ko plaza «oso leku irekia» dela probestuz, aste osoan zehar ariko da Elena Aitzkoa, bere lana gauzatzen.

Egitasmoaren ideia tailerrean sortu zitzaion arren, gerora zerbait aldaketa egin behar izan ditu, materiala kanpoko egoerara egokitzeko. Honen harira, Tolosako ikastetxe guztietako gaztetxoei deialdia egin die Elena Aitzkoak, bere eskultura iragan-korrean parte har dezaten: «Askotariko materiala ekartzeko es-

Aste honetan erabakiko dute 'Estolda arteko lerroak' lanaren kokalekua

katu diet, beraiantzat kuttuna den zerbait, etxean duten zerbait, edozer. Eurek ekarritakoa lurrean jarriko ditudan piezetan txertatuko dut, eta horrela, plazara etortzen direnero ikusi ahal izango dute, beren zatitxo bat ere bertan dagoela».

Horrela beraz, eta Alondegi-ko plaza biziberritzeko bide horretan, hirugarren saria jaso duen *Harrikumeak* proiektua ez da aste betez soilik ikusgai izango, Elena Aitzkoa egilearen eta Nisa Goibururen arabera. «Egitasmoa sortu nuenean, iragan-kortasun horri ez nion garrantziarik eman, eta herriko gaztetxoekin elkarlanean egingo dudanez, udalarekin eta antolatzaileekin zehaztu dugu proiektuak kalean pasako duen denbora», azaldu du Aitzkoak.

o tolosa@hitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota urteko zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Interesatuak, deitu 620 30 59 31 telefono zenbakira.

■ **Pintorea.** Tituludun pintorea eskaintzen da, edozein lanerako. Prezio ekonomikoa. Deitu 680 449273 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariak,

IGANDETARAKO ARGAZKILARIA

behar du

Interesa duzuenok, bidali curriculum-a:
tolosaldean@hitza.info
helbide elektronikora



Juan Mari Mujikaren askatasuna eskatu zuten Amezketan, iragan ostiralean. A. IMAZ

Juan Mari Mujika 'Ataun' isolamendu egoeran daukate Soto del Realeko espetxean

Espetxetik Auzitegi Nazionalerako bidean, «tratu zakarra» jasan zuela esan du amezketarrak

Asier Imaz

Juan Mari Mujika *Ataun* Soto del Realeko espetxean daukate, Madrilan, isolamendu egoeran. Senideek herenegun izan zuten ikusteko aukera, eta «ondo» zegoela esan dute. Hala eta guztiz ere, espetxetik Auzitegi Nazionalerako joan etorrian, «tratu zakarra» jasan zuela esan zien Mujikak senideei: «Esku burdinak oso estu jarri zizkieten, eta horren ondorioz, oraindik eskuko zati batean ez dauka sentibilitaterik. Horrez gain, joan etorri guztian oso jarra behartuan eduki zutela esan zizgun».

Isolamendu egoeran dagoenez, goizetan bakarrik ateratzen da patorra, eta bi edo hiru orduz.

Eguneko gainontzeko ordu guztiak zeldan pasatzen ditu, bakarrik. Telefono deiak oraindik baimendu gabe omen ditu Mujikak, beraz, senideek ez dakite berriro noiz edukiko duten berarekin telefonoz hitz egiteko aukera. Hurrengo bisitari dagokionez, larunbaterako eskatuko omen dute.

Frantziako justiziak ostegunean onartu zuen Juan Mari Mujikaren aurkako euroagindua, eta egun berean Espainiaratu zuten. Amezketan bizi zen ataundarraren askatasuna eskatzeko, ostiralean, Amezketan, elkarretaratzea egin zuten. Bertan, eskualdeko herritar ugari elkartu ziren, eta hauen artean, Bilduko hainbat udal hautetsi ikus zitezkeen. Elkarretaratzearen amaieran, batzar informatiboa egin zen Juan Mari Mujikaren egoeraren berri emateko. Bertan azaldutakoaren arabera, Espainiaratu ondoren, ostegunean, senideekin telefonoz hitz egiteko aukera izan zuten Mujikak. Hurrengo egunean, goizez, epailearen aurrera era-

man zuten Auzitegi Nazionalera, eta handik, Soto del Real espetxera.

Gernikako Akordioa sinatu zuten Amezketa hainbat eragilek, aste honetan elkartzeko asmoa azaldu dute, Juan Mari Mujikaren espetxeratzea salatzen.

Egibarren senideak etxean

Mikel Egibar preso zizurkildarraren emaztea iragan astean irten zen Donostiako ospitaletik, eta seme-alabekin batera, etxean dago. Gertukoek azaldu dutenez, «oraindik ahul dagoen arren, egunetik egunera hobeto aurkitzen da».

Mikel Egibarren senideek auto istripua izan zuten abuztuaren 7an, Zaragozan, bisitatik bueltan zetozela. Emaztea eta seme-alabak zihoazen autoan. Kolpe larriena emazteak jaso zuen, baina seme-alabak ere ospitalean egon behar izan zuten istripuaren ondorioz. Hauek, abuztuaren 20an irten ziren Donostiako ospitale-tik.

«Eraso sexista» gaitzestu du gobernu batzarrak

Tolosako Udaleko gobernu batzarrak hainbat konpromiso berretsi ditu irailaren 2ko gertaeren harira

A. Imaz Tolosa

Tolosako Udaleko gobernu batzarrak «eraso sexisten» aurkako mezua kaleratu du, irailaren 2ko gertaeren harira: «Udalerrian izan zen eraso sexistaren aurrean, gaitzespen eta salaketa irmoena helarazi nahi dugu, eta elkartasuna eta dolumina adierazi emakume horri eta bere hurbilekoi».

Tolosako Udaleko gobernu batzarrak iragan ostiralean elkartu zen, eta bertan, hainbat puntuko adierazpen instituzionala onartu zuen. Alde batetik, «indarkeria matxistaren erabateko arbu-dioa», eta bestetik, tolosarrei indarrak biltzeko ahalegina eskatu zuten: «Emakumeen aurka eragindako indarkeria-adierazpen oro salatuz eta indarkeria horren aurka borrokatzeko emakume eta gizonen konplizitate bilatuz».

Gobernu batzarrak borrokan jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen, «sentsibilizazio, prebentzio eta hezkuntza arloan hainbat ekimen eta jarduerak bultzatuz». Horretarako, talde feministen eta «gaitz hori» desagerrarazteko lanean diharduten erakunde sozia- lekin elkarlanean ariko direla azaldu zuten. Genero Indarkeria- ren eta sexu-erasoen Biktima di- ren Emakumei Hobeto Lagun- tzeo Erakunde arteko Koordina- ziorako Protokoloa lantzeko eta martxan jartzeko asmoa ere azal- du zuen gobernu batzarrak. Poli- tikoki, berdintasunaren aldeko jarrera aktiboa bultzatu nahi du batzarrak, emakume eta gizonen artean. Bertako kideen esanetan, «politika horiek ere tresna fun-

tsezkoa dira emakumeen aurka- ko indarkeria desagerrarazteko bidean aurrera egiteko».

Murrizketen aurka

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko, «baliabide eta zerbitzuetan egi- ten diren murrizketen jarraipena egingo dugu» azaldu zuen gober- nu batzarrak. Urratsak emateko prest daudela ere jakinarazi zu- ten udaleko kideek: «Bidezkoa eta egokia bada, murrizketa ho- riek salatuko ditugu eskumena duten erakunde eta agintarien aurrean».

Zaintza eta salaketa lan horrek beste helburu bat izango duela ere azaldu zuten: «Emakumeen askatasuna eta eskubideak mugatze- ko bestetarako balio ez du- ten politika murriztaile eta neu- rriak ezar ez daitezkeen ahalegin- tzea». Kaltetako jo zituzten neurri horien artean, ondorengo- ak aipatu zituzten, besteak beste, «harrera-etxeak itxia, tratu txar- rarak jasan dituzten emakumei laguntzeko neurriak murriztea, abortuaren legearen erreforma, etab».

«Arazoaren sorburua»

Giza eskubideen urraketarik lar- rienetakoa da indarkeria ma- txista Tolosaldeko Udaleko gobernu batzarraren esanetan: «Emaku- mearen duintasanaren aurkako eraso da, bai eta gure gizarte- an indarreen dirauen desorekaren adierazpen bortitzena ere». Ara- zo ikaragarri konplexua, eta glo- bala dela azpimarratu zuten udal ordezkariak, «mundu osoko emaku- meen bizitza mehatxatzen bai- tu gaitz horrek, eta haien askata- suna eta eskubideak murrizten ditu». Sorburua «emakume eta gi- zonen arteko desorekan» oinarritzen dela azaldu zuten. Gauzak argi eta garbi azaltze aldera, ara- zoaren «sorburua» gizarte harre- manak direla aipatu zuten.

→ Laburrak

San Agustin jaien balantzea egiteko bilera

BERROBI › San Agustin jaien inguruko balantzea egingo dute gaur, hilak 11, Berrobin. Batzarra udaletxean izango da, 19:00etatik aurrera. Udaletik herritar guztiak gonbidatu dituzte bilerara, denon artean balantzea egiteko.

Santioen balantzea egiteko batzarra, gaur

AMASA-VILLABONA › Jai batzordearen bilera egingo dute gaur, hilak 11, Santio jaien balantzea egiteko. Batzarra udaletxean izango da, 19:00etatik aurrera. Balio ani- tzeko gelan. Amasa-Villabona- ko Udalak herriko eragile eta herritar guztiak gonbidatu ditu bilerara. Guztien artean, uztai- laren amaierako herriko jaien nondik norakoak aztertuko dituzte.

Bigarren eskuko azokarako material bilketa

GIZARTEA › Europako Mugikor- tasun Astearen barruan, Villa- bonan, Tolosaldeko bigarren eskuko azoka antolatuta du To- losaldea Garatzenek. Azoka eguna, hilaren 22an, larunbata, ospatuko da. Bertan, mugikor- tasun iraukorrarekin lotutako materiala izango da salgai eta materiala saltzen jarri nahi du- enak, bere herriko udaletxean utzi beharko du materiala hila- ren 10-etik 19-ra bitartean.

Greba orokorra bultzatzeko batzordea

ANOETA › LAB, ELA, ESK, STEE- EILAS, EHNE, HIRU, CGT-LKN eta CNT sindikatuek, eta hain- bat eragile sozialek greba oro- korrera deitu dute Hego Euskal Herria, irailaren 26an. Anoetan, Ezker abertzaleak greba aurrera eramateko batzordea osatu nahi du. Helburu horrekin, herri- tarrak deitu dituzte gaur, 19:00etan, herriko plazara. Ber- tan erabakiko dituzte jarraitu beharreko ildoak.

EAJ gardentasun ekonomikoaren alde

AMASA-VILLABONA › EAJk gar- dentasunaren inguruko mozioa aurkeztuko du biharko osoko bilkuran. Bertan, 2011 urtean, Villabonako Udalak hainbat elkarte, sozietate, kolektibo, partidu politiko, eta abarri eman zizkien diru-laguntza guztiak argitaratzea eskatuko dute, hurrengo Amavi aldizka- rian eta herriko web-orrian. Bil- kura udaletxean izango da, 19:00etatik aurrera.

Tolosa



ISTRIPUEN AURREAN ZER EGIN

DYA elkarteak Ocasuna eta Istripuen Prebentziorako Asteari amalera eman zion larunbaterako tallerarekin. Bertan, moto istripu bat iruditatu zuten eta horren aurrean egin beharrekoak azaldu...

Tolosa



IDEIEN LEHIAKETA, AMAITZEAR

Tolosa Merkat proiektuaren barruan, flashmob bat egin zuten larunbatean ideien lehiaketa bultzatzeko. Herriko zazpi lokal alokairuan jarri dira ohikoa baino prezio merkeagoan. Lokai horietan komertzioaren bat jarri nahi duenak bere proiektua aurkeztu behar du, eta epea hilaren 20ean bukatuko da.

Bertako informazioari bertako produktuari

Egin HITZAren herrialdean

OPARI

Leitza



TALO EGUNAREN BALANTZE «OSO ONA»

«Oso giro polita, jende ugari eta eguraldi bikaina». Laburbilduz, balantzea «oso on» egin dute igandean izan zen Leitzaiko Talo Egunaren balantzeak. «Aurten postu gehiago zuden, berriz, mugimendu gehiago nabaritu da, baina, hori bai, salmenta agian eskasagoa izan da», gaineratu dute. Jateste eta tabernek taloekin eginko plateren erakusketa egin zuten. «Oso polita» izan zela, eta «ikusmin handia» sortu zuela esan dute. Amakastatsak, baita ere, gaiztoei zuzendutako guri libalidiek eta talo tailerak. Azken honetan, 100 gazte baino gehiagok parte hartu zuten. Puntu berezia Mielbix Saralegiren 4 urteko semeak jarri zuen harri-jasotze erakustaldiarekin...

Leitza



‘GAIZKILEEN MUGAK’ AZTERTU DITUZTE


Nabarraldiek antolatutako duen Historialariaren Biltzarako Leitzaiko jardunaldiak emandakoarekin eta izan duen jarraipeneren «oso gustura» agertu dira antolatzaileak. 85 pertsona inguru izan diren ponentzien eta mahai-inguruaren sailoetan, larunbatean, Gaizkileen mugak izan da Leitzaian aztertutako gaitzak. Biltzarak jarraipena izango du asteburu honetan, Agoitzaren eta Irulaian...

Amasa-Villabona



JENDE UGARI ELIKAGAIEN AZOKAN

Amasa-Villabonako Irrintzi elkarteak antolatzen duen Elikagaien Azoka Berezian 43 postu jarrituzten eta jende ugari izan zen. Postuen artean saririk banatu dituzte; lehengoa Zamudioko Josu laraldaren fruitu postuarenezat, bigarrena Baigorriko Maite Urriyuren pate produktuen postuagatik, eta hirugarrena Ubadeko Ainara Beobidoren sabelo produktuen postuagatik. Isats gisatuaren lehiaketan Amasa-Villabonako Behar Zanako Juanxto Martinezek irabazi du. Bigarrena Amasa-Villabonako Irrintzi elkarte izan da, hirugarrena Asteasuko Aitzondo, laugarrena Amasa-Villabonako Zunbeltz eta bosgarrena Amasa-Villabonako Uxo-Toki elkarteak...



Aldizako jaietan, haurrentzako txirrindularitza proba antolatuta zuten...

Puzgarrietan saltokia ibiltzako aukera izan zuten Lizartzako jaietan haurrek...



Zuzurkigo jaietan, balkoietak lore apainketa lehiaketako hairbat parte hartzaile, eta haur bat Jose Arregi plazan jarri zituzten jokoetako batean...



Elduainen herriarekin prestatu zuten herri bazkarian jan zuten paella...

Tolosako Izaskungo jaietan azoko bazkarian jende ugari elkartu zen...

Festa giroa nagusitu da eskualdean

Imanol Garcia Landa

Hainbat herri eta auzotan festak ospatu berri dituzte. Aizkoa, El-dhain, Lizartz, Zuzurkigo eta Tolosako Bedaio eta Izaekun atzoak jai giroz bost dira, batez ere aste-buruan. Ohi bezala, haurrak oso kontuan izan dituzte egitarauak osatzerakoan eta berarekin izaten dira protagonista eguneko ekitaldietan.



Tolosako Bedaio auzoan haurrek jolasen aukera izan zuten, besteak beste, aukien jolasarekin...

Txapela jantzi ez arren, Zeberio II.a «gustura» dago egin duen lanarekin

Jabier Urrizaren aurka galdu du buruz buruko erremonte finala; orain txapela defendatzea du helburu, binakakoan

Iñigo Terradillos Elduain

Bere hirugarren txapela izan zitekeen buruz burukoan, baina ez da posible izan. Patxi Zeberio Jabier Urriza izan zuen aurrez aurre larunbatean Galarretako finalean. Bi aurrelariren arteko ezohiko final handia eskarmentu gutxien duenak eskuratu zuen, iruindarrak, 30-28ko emaitzarekin.

Elduaindarraren seigarren finala zen buruz burukoan, eta iruindarrarena, berriz, lehena. Beraz, estreinakoz jantzi du txapela erremontearen txapelketa handiengan. Ez da, ordea, lan erraza izan, Zeberio ez baitzuen batere erraz jarri. Elduaindarra aurreratu zen markagailuan, zazpi tanto aurretik jarriz. 9-13ra arte aurretik joan zen Zeberio, baina, une horretan orekatuz joan zen partida. Urrizak aurretik jartzea lortu zuen, baina Zeberio gogor eutsi, eta aurrea hartu zion berriro.

Urrizak alde egitea lortu zuen berriro, eta Zeberio gerturatu egin zitzaion, 22 eta 23 aurretik jarri arte. Elduaindarrak ez zuen lortuko berriro ere aurretik jartzea, baina, hori bai, puntu bakarrera izan zuen aurkaria. 29-28 egon zen markagailua partidaren azken txanpan. Beraz, batera edo bestera egin zezakeen partidak. Azkenean, iruindarrak egin zuen azken tantoa, 30-28koa. Batak zein besteak final handia egin



Zeberio eraso bati erantzuna ematen, larunbatean, Galarretan. MAIALEEN ANDRES

zuen. Zeberio zortzi tanto egin zituen sakez, baina pilotean gutxiago izan zen, 13 tanto eta 5 kale eginez. Urrizak, berriz, 19 tanto eta 6 kale egin zituen.

Ordubeteta 13 minutuko iraupena izan zuen finalak, eta ederki gozatu zuten zaleek, tentsio eta emozio handikoa izan baitzen.

«Ikuskizun ona eman dugu»

Patxi Zeberio ez du txapela jantzeko helburua bete, baina «gustura» dago, partida «ona» egin duelako: «rabazi ez arren, nire maila eman dut, eta gustura geratu naiz; gainera, final polita izan da, emazio eta tentsio handikoa, eta jendea pozik geratu da, beraz, hori ere oso garrantzitsua da». Elduain festetan zegoenez, herritar

ugari izan zen finalean, eta babes hori «asko» eskertu du Patxi Zeberio.

Partidari dagokionez, pilotean Urriza gehiago izan zela onartu du: «Maila oso ona eman zuen, espero nuena, eta batez ere pilotean gailendu zen; nik, berriz, sakean espero baino gehiago egin nituen».

Orain buru-belarri jarriko da binakako txapelketa prestatzen. Urriaren amaiera aldera ekin dio, eta iaz irabazitako txapela defendatzea izango da bere egitekoa. Oraindik, baina, ez daki norekin batera ariko den lehian: «Enprekak osatzen ditu bikoteak, eta oreka mantentzea bilatu ohi dute; nire kasuan, edozein pilotaririk oso gustura jokatuko dut».



Leitzako txinga txapelketaren ostean, aizkora erakustaldia egin zuten. HITZA

Nafarrak bigarren eta gipuzkoarrak hirugarren izan dira

Bizkaiak irabazi du Zazpi Herrialdeetako Txapelketa; Leitzan, Agirregabiria izan da nagusi txingekin

I. Terradillos

XXIV. Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketa jokatu zuten iragan larunbatean Getxon eta Algotan. Bizkaia izan zen nagusi, 50 punturekin lehen postua erdietsiz. Bere atzetik sailkatu ziren, lau puntuko aldearekin Nafarroa Garaia, eta hamahiruko aldearekin, Gipuzkoa. Bi horietan, gure eskualdeetako kirolariak aritu ziren lehian.

Sokatiran, esaterako, Ibarako sokatira taldea lehiatu zen Gipuzkoa ordezkatzuz. Ezpeletako Ñapurak taldeak lortu zuen lehen postua, Abadiño bigarrena, eta hirugarren izan zen Ibarra.

Bestalde, Jokin Garmendia eta Unai Iraola (Baliarrain-Ikatzegietan) hirugarren sailkatu ziren trontzan; Pello Argaiak (Zizurkil) bosgarren egin zuen lasto-jasotzen; Josetxo Urrutiak (Leitza) bigarren egin zuen ingudearekin; eta Lazaro Bujanek (Leitza) bosgarren amaitu zuen orgarekin.

Txingarekin, Leitzan

Bestalde, herenegun Euskal Herriko Gizonezkoen Txinga Txapelketa jokatu zuten Leitzan. 50 kiloko txingak esku banatan hartuta, Juan Jose Agirregabiria debatarra izan zen lehena, 24 plaza eginez. Ousmane Drame getxotarra bigarren izan zen 15 plaza eginez, eta Barakaldoko Oscar Perez hirugarren, 14 plaza eginez.

Leitzako Talo Egunaren barruan jokatu zuten herenegun txinga txapelketa. Halaber, aizkora erakustaldia ere egin zuten Leitzako aizkolarien parte hartzearekin.

Unai Otaño Urrezko Aizkolarien finalean lehiatzeko sailkatu da

Ibartarrak Ugaitz Mugertzaren aurka irabazi du, eta Floren Nazabalen aurka galdu, azken bi probetan

I. Terradillos Tolosa

Unai Otaño ibartarrak Urrezko Aizkorako finala jokatzeke txartela lortu du. Iragan astean Txapeldunen Ligako bi kanporaketa

jokatu zituen, eta horietako bat irabazita, finalean lehiatzeko postu bat lortu du.

Asteazkenean Ordiziako Euskal Jaiaren barruan jokatu zuen kanporaketa Mugertza II.aren aurka, eta Ibarakoak bi minutu baino gehiagoko aldea atera zion Mutrikukoari lehen proban. Lan erdian mutrikuarrak 27 segundoko tartea atera zion, baina bukaeran, favoritoak, hau da, Otaño garaipena lortu zuen. Lan guztia egiteko 21 minutu eta 11 segundo

behar izan zituen Otaño, eta Mugertzak, berriz, 23 minutu eta 14 segundo.

Bigarren kanporaketa Urduliz jokatu zuen Otaño, Floren Nazabalen aurka. Etxarriko txapeldunaren aurka ezin izan zuen ibartarrak. Nazabal proba guztietan nagusi izan zen, eta lan osoa amaitzeko 24 minutu behar izan zituen. Unai Otañoaren denbora, berriz, 26 minutu eta 31 segundoko izan zen.

© ibarraldea@hitza.info

Hirugarren postuan sailkatu da Kontxan, Getaria-Tolosa

I. Terradillos Tolosa

Aurreikuspenak betez, Galiziako Rias Baixas taldekoek lortu dute aurreko Kontxako Bandera. Modu horretan, bosgarren garai-pena batu dute galiziar neskek. Zumaia izan zen herenegun proban nagusi, baina, hala ere, galziarrak ezin izan zituzten garaitu sailkapen orokorrean.

Galiziak 10 segundoko aldea

zuen Getaria-Tolosa traineruarekin, beraz, zail ikusten zen euren aurrea hartzea. Zumaia errekorra ezarri zuen egindako denborarengatik, eta horrela, sailkapen orokorrean bigarren amaitu zuten zumaierrek. Getaria-Tolosakoak, berriz, hirugarren egin zuten, eta hirugarren postuan amaitu zuten sailkapen orokorrean, irabazleengandik ia 14 segundoko aldearekin.

Aurtengo txapelak Altuna, Irribarria eta Arzelus pilotarientzat izan dira

XXIII. Joxean Tolosa Txapelketako hiru finalak Zazpi Iturriko pilotariak irabazi dituzte, lehen aldiz

Eneritz Maiz Amezketak

Igandean eman zioten amaiera XXIII. Joxean Tolosa Txapelketari. Hiru partida izan ziren jokoan eta Altuna, Irribarria eta Arzelus pilotariak jantzi zituzten txapelak. Lehen aldiz, Zazpi Iturriko, hau da, Amezketako pilota eskolako pilotarientzat izan dira garaipen guztiak. Bakaikoa, Elustondo eta Rezusta pilotariak txapela janzteko aukerak zituzten arren, aurtengoan, finalera iristearakin konformatu behar izan dute.

Festa handia izan ohi dira Joxean Tolosa Txapelketako finalak, eta final askotan gertatzen den moduan, ez ziren partida onak atera. «Pilotariak, ez zeuden eta ezer oparitzeko», azaldu du Xalton Zabalak txapelketaren antolatzaileak.

Kadeteen mailan, Altunak eta Bakaikoa jokatu behar izan zuten finaleko partida. Bakaikoa 3 tanto baino ez zituen lortu Altunaren aurkako partidari. Zazpi Iturrikoek esperantza handia zuten Jokin Altunarengan, eta honek partida serioa egin zuen. Xalton Zabalak adierazi duenez, «txapela nahi zuen eta serioegi jokatu zuen». «Eman eta eman aritu zen, ia airez sartu ere egin gabe. Egun ona izan zuen, eta nahi zuen guztia egin zuen. Bakaikoa, aldiz, ez zuen egun ona izan. Urduri atera zen, eta beldurrez aritu zen».

Gazteen mailan, Elustondo berrobitarra 2an utzi zuen Irribarriak. «Bi pilotariak lagun handiak dira, baina igandean ez zen horrela izan. Lagun bati emateko egur handia da», adierazi du Xal-

↓ **Emaitzak**

KADETEAK	
Bakaikoa	3
Altuna	18

GAZTEAK	
Irribarria	18
Elustondo	2

NAGUSIAK	
Rezusta	16
Arzelus	18

ton Zabalak. «Irribarriak izugarri jokutzen du, eta erraz egiten du dena. Kontuan hartu behar da kadetea dela eta gazteen mailan jokatu duela».

Nagusien mailan, berriz, Rezusta 16 tantoan utzi zuen Beñat Arzelusek. «Egiakoak azkenean lortu du txapela», gaineratu du Zabalak. «Laugarren finala zuen, eta aurreko hirurak galdu egin zituen, eta adarra jotzen ere aritu gara final gehien galdu dituen pilotaria dela esanez, baina ez zuen etsi eta garaipena eskuratu zuen», argitu du. «12 eta 16 galuzten joan zen, baina partidari buelta ematea lortu zuen. Sakez tanto asko egin zituen», gaineratu du.

Giro ona nagusitu zen igande arratsaldean. «Oso ondo pasa genuen, eta batez ere, jendea gustura edukitzen saiatu ginene», azaldu du amezketarrak. «Barberiak

Xalton Zabalari zuzendutako esker eguna egingo dute hilaren 30ean

aukeratutako doimu goxoko eta Iñaki Elortzak mikrofonoari ematen dion astindu profesionalak borobildu zuten Larrunarri pilotalekuko arratsaldean». Eskerrak eman nahi izan dizkio Xalton Zabalak Iñaki Elortzari: «arratsalde guztian esatari lanak



Joxean Tolosa sari banaketaren une batean, atzo. HITZA

egin zituen, eta partida bakoitzaren ostean, bertaratutako guztientzako pilotariak elkarriketatu zituen».

Joxean Tolosa pilotari ohia, urtero moduan, pilotalekuan izan zen. Pilotari gazteei sariak banatzea tokatu zitzaion, eta baita argazkiak ateratzea ere. Sari banaketaren ostean, antolatzaileak, pilotariak eta familiakoak Zazpi Iturri elkartean bildu ziren lagun artean afaltzeko.

Iaz hiru finaletara iritsi ziren, Zazpi Iturriko pilotariak, eta bi txapel eskuratu zituzten. Aurten, ordea, lehen aldiz, hiru txapelak etxeko pilotariak bereganatu dituzte.

Xalton Zabalak azaldu duenez, gauza asko dauzkate zuzentzeko, eta, esaterako, gaur bertatik hasi-

ko dira frontoia pintatzen. Eta datorren urteko txapelketako finala telebistaz emana izan dadin ere saiatuko direla adierazi du.

Eskertza bazkaria

Hilaren 30ean, Xalton Zabalari esker egun bat antolatu nahi diote. Antolatzaileek esan dutenez, «honek ez du esan nahi utzi egiten duenik, baina bere ibilbidea txalotzeko egun bat antolatu dugun». Goizean partidak izango dira, eta gero bazkarian elkartuko dira guztiak.

Bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte herriko tabernetan eta udaletxean. Eskertza egun honetan parte hartu, eta bazkaria joan nahi dutenek, txartelak hilaren 24a, astelehena, baino lehen erosi beharko dituzte.

Karlos Peña tolosarra 24 orduz igerian ariko da Alqueva urtegiari



Karlos Peña tolosarra. HITZA

Hilaren 14tik 15era egingo du saioa tolosarrak; Portugal eta Extremadura artean izango da

Erredakzioa Tolosa

Karlos Peña igerilari tolosarrak, beste behin, elkartasuna adieraziko du igerian. 60 kilometro egingo ditu Portugalgo Alquevatik hasi eta Extremadurako Chelersaino. Hilaren 14ean, 17:00etan ekingo dio saioari, eta hurrengo eguneko 19:00ak eta 20:00ak artean bukatuko duela aurreikusten dute.

Zailtasun bat izango du igerilariak, bizkarrez egingo baitu igerian. Gainera, ur korrontearen aurka egin beharko ditu ibilbide osoak dituen 60 kilometroak.

Kasu honetan, Extremadurako hezur muin eta zilbor heste emailleen elkartari adieraziko dio bere elkartasuna. Tolosarrak ez du lehen aldian honelako elkartasun keinuak egiten.

Chelersaino udalaren, Extremadurako Gobernuaren eta Gazte eta Kirol sailaren laguntza jasoko du Carlos Peña igerilari tolosarrak.

● tolosa@hitza.info

Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ 25°
≈ 17°

GOIZA	ZAPARRADAK
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	22°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Amasa-Villabona.** Jai batzordearen bilera egingo dute herriko hainbat eragilerekin 2012ko Santio jaien balantzea egiteko, 19:00etan, udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Udalak gonbitea egin die herritarrei bilera joan daitezzen.
- **Berrobi.** San Agustin jaien balantzea egiteko bilera egingo dute 19:00etan, udaletxean. Udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera.
- **Tolosa.** Eskulturastearren barruan, 20:00etan hitzaldi-etzabaida Topic zentroan, *Hiriaren eraikuntza: erronka berriak arte parte hartzean hiri eremuan* izenburupean.
- **Tolosa.** Bonberenea Sutan jaialdia egingo dute irailaren 15ean. Sarrerak internetez eskuratu daitezke, *sarrerak@bonberenea.com* helbidera idatziz, edo Tolosako ondorengo tabernetan: Eguzki, Orbela, Denak eta Mescal. 15 euro balio du eta ondorengo musika taldeak izango dira Bonbereneako futbol zelaietan: Glaukoma, Matxura, Berri Txarrak, Gas Drummers eta Gose. Etxe barruan, Olarius eta Brothers rock DJ's.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, 1; Korreo kalea, 2; 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M.; Gernikako Arbolaren Lorategiak, 3; 943 65 10 40.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

XVI. Argazki Lehiaketa



GALIZIAKO ITSASERTZAREN LILURA


Larrauldik bidali dute XVI. Argazki Lehiaketan parte hartzeko beste argazki bat. Galiziako oporraldia gogoan du Olga Villak: «Abuztuan Galizian izan ginen. Argazki hau Cabo de Hommen egina da; Vigo

inguruetan. *Mariskiño* asko eta merke jateko aukera izan genuen. Aurrean Cies irla ospetsuak ikus daitezke eta ezker aldean Cabo de Hommeko itsasargia». OLGA VILLA

Agurak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurak



ZORIONAKI

Eñaut eta Oier. Atzo, hilak 10, Eñautek eta Oierrek 8 urte bete zituzten. Segi beti bezain alai eta jator. Mxh1. Enara, aitaixo eta amatxo.



Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAKo materiala zozkatuko dugu.

XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!

1.Saria: Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia. Bermokiz,6 - 48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

2.Saria: Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa. www.ardanzestudioa.com

3.Saria: Orue erretegi, bi pertsonentzako otordua. Samarniego kalea, 3-Tel.: 943 65 19 11 - 20400 (TOLOSA)

